

## BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

6223

*EBAZPENA, 2018ko abenduaren 11koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita lankidetzaren entitateei laguntzak ematea, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak susta ditzaten, 2018. urterako.*

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan daude araututa lankidetzaren erakundeei eman beharreko laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2018ko irailaren 3ko Ebazpenaren bidez, deialdia egiten da lankidetzaren erakundeei laguntzak emateko, 2018. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak susta ditzaten.

Deialdiko ebazpen horren 5. artikuluekin bat horretarako izendatutako balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuak azterketa teknikoa egin eta laguntza-eskabideak baloratu ostean, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2018ko irailaren 3ko Ebazpenaren deialdiko laguntzak ematea ebazpen honetako eranskinean zerrendatutako erakundeei, eranskinean bertan aipatutako baldintza eta zenbatekoetan.

Bigarrena.— Kanpoan uztea II. eranskinean zerrendatutako erakundeen eskabideak, eranskinean bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denek jakin dezaten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu denetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik ez bada eman, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 11.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2018ko abenduaren 19a, asteazkena

## I. ERANSKINA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

| Espedientea     | Erakunde eskatzailea                                                                                             | Helburua                                                                                        | Puntuak | Diru-laguntza |
|-----------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|---------------|
| GBA-2018BA/0009 | Asociación Medicus Mundi Álava-Araba                                                                             | Genero-diagnostiko parte hartzailea eta genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa | 74,75   | 41.748,98     |
| GBA-2018BA/0011 | Fundación Etiopia Utopía Fundazioa                                                                               | Genero-diagnostiko parte hartzailea eta genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa | 74,49   | 34.901,68     |
| GBA-2018BA/0003 | Entre Amigos - Lagun Artean                                                                                      | Genero-diagnostiko parte hartzailea eta genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa | 70,75   | 39.020,69     |
| GBA-2018BA/0004 | Fundación Oxfam Intermón                                                                                         | Genero-diagnostiko parte hartzailea eta genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa | 70,75   | 36.709,65     |
| GBA-2018BA/0007 | Fundación UNICEF Comité Español.<br>Delegación en la CAE                                                         | Genero-diagnostiko parte hartzailea eta genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa | 68,75   | 23.655,74     |
| GBA-2018BA/0012 | Asociación Setem Hego Haizea                                                                                     | Genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa                                         | 73      | 15.950,00     |
| GBA-2018BA/0005 | Asociación REAS Euskadi - Red de Economía alternativa y Solidaria / Economía Alternatibo eta Solidarioaren Sarea | Genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa                                         | 85,25   | 40.000,00     |
| GBA-2018BA/0006 | Asociación Medicus Mundi Bizkaia                                                                                 | Genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa                                         | 64      | 37.048,56     |
| GBA-2018BA/0002 | UNESCO Etxea-Centro UNESCO del País Vasco                                                                        | Genero berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa                                         | 51,55   | 20.964,70     |

## II. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO PROIEKTUAK

| Espedientea     | Erakunde eskatzailea                                | Baztertzeko arrazoia                                                                                                 |
|-----------------|-----------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| GBA-2018BA/0001 | Fundación Mundubat - Mundubat Fundazioa             | Proiektua baztertuta geratu da, 100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10. artikulua jasotzen duen bezala |
| GBA-2018BA/0008 | Garabide Kultur Elkartea                            | Proiektua baztertuta geratu da, 100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10. artikulua jasotzen duen bezala |
| GBA-2018BA/0010 | Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional | Proiektua baztertuta geratu da 3.c) 1 artikulua ez betetzeagatik                                                     |